

Euskadi-Frantzia lagunartekoa
emakumezkoen eskubaloian

EMAKUMEZKOEN ESKUBALOI SELEKZIOAK FRANTZIAREN AURKA JOKATUKO DU ASTELEHENEAN ORERETAKO KIROLDEGIAN

Emakumezkoen txanda

Euskal selekzioen historian lehen aldiz, emakumezkoen nazioarteko partidu bat jokatuko dute kirol olinpikoan. Datorren astelehenean eskubaloiko Selekzioak Frantziarekin neurtuko ditu indarrak, Kilometroak 99ren egitasmoaren barruan. Emakumezkoen txanda iritsi da.

Gorka Zabaleta / Oiartzun

EUSKAL SELEKZIOEN historian urrats berri bat egingo da datorren astelehenean. Ofizialtasunaren bidean oraindik kilometro ugari falta zaizkie kirol selekzioei, baina urratsak egitea ezinbestekoa da, aurrera egin nahi bada. Horixe pentsatu du Eskubaloi Federazioak, eta, Kilometroak 99ren laguntzarekin, datorren astelehenerako Euskadi eta Frantziaren arteko lagunarteko partidua antolatu dute: Euskadi-Frantzia, baina emakumezkoena. Horrela, kirol olinpiko batean Selekzioak emakumezkoetan jokatuko duen lehen nazioarteko partidua da. Gizonezkoek badute esperientzia horrelako partiduetan, eta jubeniletan ere aritu izan dira nazioarteko torneotan, baina emakumezkoentzat astelehenekoa izango da estraineakoa.

Xabier Zuriarrain Eskubaloi Federazioko presidentek adierazi zuenez, ordea, ez da azkena izango. Ekimen honi jarraikortasuna emateko asmoa du Federazioak, «asanbaldak horrela erabaki baitzuen bere garaian, ondoren atera diren legeak alde batera utzita». Hemendik aurrera, gizonezko zein emakumezko selekzioak aritzea da helburua, eta hurrengo pausoa atzerrira ateratzea dela azpimarratu zuen Zuriarrainek: «Aljerian jokatuko eskaintza jaso dugu, baina ez joatea erabaki dugu, bertan duten egoera politikoagatik. Dena den, espero dugu Frantziaren gonbita jasotzea, eta neskek zein mutilak Parisen jokatuko aukera izatea».

Partidua antolatu ahal izateko, Zuriarrainek biziki eskertu zuen Oreretako Ikastolaren eta Kilometroak 99ren laguntza, «bestela ezinezkoa izango litzaigukeelako horrelako partidu bat aurrera ateratzea». Ildo horretatik, Xabier Oleaga Oreretako Ikastolako zuzendariak nabarmendu nahi izan zuen «kirola maila hauetan oraindik urrun» dagoela interes ekonomiko eta beste batzuetatik, «eta oso gertu, ordea, kirolak zentzu askotan duen lehen mailako hezkuntza erreferentziatik».

Azkenik, Jose Inazio Altube hautatzaileak Frantzia maila handiko selekzioa dela adierazi zuen, baina euskal selekzioak aurre egiteko modua izango dela uste du. Jakinarazi zuenez, deituriko jokalariz guztiek ilusio handia agertu zuten jokatzeke. Tati Garmendia eta Izaskun Mujika ezingo dira aritu, L'Elia taldearekin Europako Kopako konpromisoa dutela, baina beste guztiek ez dute hutsik egingo.

EUSKADI ETA FRANTZIAREN ARTEKO LAGUNARTEKOA					
					
Abenduak 28, 19:00tan (ETB1)					
Oreretako kiroldegian					
► Euskadi			► Frantzia		
izena	kluba	postua	zenb.	izena	kluba
Anne Eizagirre	Bera-Bera	Lehen lerrokoa	16	Alexandra Hector	San Merignac
Aitziber Elejaga	Bera-Bera	Atezaina	12	Marie-Annick Dezert	Dijon
Sonia Garcia	Caja Cantabria	Atezaina	1	Johan Dudziak	Nimes
Reyes Karrere	Bera-Bera	Pibotea	3	Estelle Vogein	Metz
Maitte Katxorro	Seur Etxebarri	hegalekoa	4	Leila Duchemann	Metz
Esmeralda Lopez	Bera-Bera	Hegalekoa	7	Nodjialem Myaro	Metz
Ainhoa Makazaga	Aiala Zarautz	Lehen lerrokoa	9	C. Joseph-Mathieu	Stade Francais
Susana Martinez	Seur Etxebarria	Lehen lerrokoa	10	Maureen Lussiez	Dijon
Maitte Morales	Verdalo	Hegalekoa	11	Stephanie Cano	Merignac
Eider Rubio	Bera-Bera	Lehen lerrokoa	14	Chantal Majo	Bouillargues
Ana Isabel Ruiz	El Ferrobis Mislata	Hegalekoa	15	Stephanie Ludwig	Metz
Mercedes Senosiain	Beti Onak	Lehen lerrokoa	17	Cecile Legoff	Brest
Amaia Ugartemendia	Porriño	Lehen lerrokoa	18	Myriam Korfanty	Mios
Nagore Zipitria	Bera-Bera	Pibotea	20	Laisa Leruss	Stade Francais
Hautatzailea: Jose Inazio Altube			Hautatzailea: Olivier Krumbholz		

Euskal selekzioak bost jokalariz Espainiako selekzioarekin aritu dira Holandako Europako Txapelketan. Guztien artean, Amaia Ugartemendia —Porriño taldean ari da— nabarmentzen da, 165 aldiz aritu baita Espainiarekin. Frantziako selekzioak bere ohiko jokalariek ekarriko ditu, baina Besançon taldekoak faltako dira, L'Elia bezala, Europako Kopako konpromisoa baitu talde horrek. Beste guztiak Oreretan izango dira. Jose Inazio Altubek adierazi zuenez, euskal selekzioa Zarautzen bilduko da pare bat aldiz partidua prestatzeko.



Zuriarrain, Karrere eta Oleaga, atzoko aurkezpenean.

EDURNE KOCH

◆ Jose Inazio Altube ◆ Emakumezkoen Eskubaloi Selekzioko hautatzailea

«Txapelketa ofizialetan aritu nahiko genuke»

■ Selekzioari jarraikortasun bat emateko asmoa duzue. Horren atzean txapelketa ofizialetarako prest egotea al dago?

Nabaria da guztiok dugun ilusioa. Euskadik txapelketa ofizialetan parte hartzea nahi genuke, hori da helburua. Baina hori ez dago gure esku. Guk gure esku dagoen guztia jarriko dugu hori aurrera aterada dadin, baina sozialki bultzada garrantzitsua behar da. Askotan selekzioa futbolarekin identifikatzen da, eta beste kirolak ere aintzat hartzea falta da, gizonezkoak zein emakumezkoak, nagusiak zein gaztetxoek. Selekzio horiek guztiak

behin eta berriro ateratzen badiugu, azkenean aldarrikatzen duguna lortuko dugu.

■ Frantziako selekzioak nolako jokoa egiten du?

Frantziako talde guztiak bezala jokatzen du. Frantziako kirol filosofiarekin bat egiten du. Defentsa oso irekiarekin jokatzen dute, 3-2-1ekoarekin edo 5-1ekoarekin. Kontraerasora jokatzen dute partidu osoan. Eraso geldian, erditik barneratzen saiatzen dira. Gero, inprobisazio handia izaten dute, banakako jokaldiak egiteko askatasuna dute.

■ Horrek esan nahi du fisikoki

ahalegin handia egin beharko duzuela Frantzia gainditzeko?

Bai, lan handia eginaraziko digute. Lau egunez etorri dira partidua prestatzeko, eta serio ariko dira. Guk ere jokalariz bizkorrak ditugu, eta partidu bizi izango dela uste dut, hasieratik amaieraraino. Horrekin ikuskizuna ziurtatuta dagoela esango nuke.

■ Zure planteamenduan ere ikuskizuna ematea garrantzitsua izango da.

Hala da. Une honetan konturatu behar dugu ikuskizuna ematea garrantzitsua dela guretzat, jendea kontura dadin emakumezkoen mailan ere badagoela

Reyes Karrere: «Gauzaturiko nahia da»

OIARTZUNEN eginiko aurkezpenean, Kilometroak 99ko eta Federazioko ordezkariak izateaz gain, astelehenean arituko diren bost jokalariz ere izan ziren: Ana Karrere, Amaia Ugartemendia, Nagore Zipitria, Eider Rubio eta Reyes Karrere. Azken hori izan zen, hain zuzen ere, jokalarien izenean mintzatu zena. Kapitainak adierazi zuenez, asteleheneko partidua gauzaturiko nahia da: «Orain arte ez da inoiz horrelako partidurik antolatu neskekentzat. Mutilak aritu izan dira, baina guretzat esperientzia berria da. Gogo handia genuen guztiok, eta azkenean gauzatu da. Gainera, Frantziaren aurka jokatuko dugu, eta horrek seriotasun handia emango dio partiduari».

Horretaz gain, emakumezkoek kirolean egiten duten lana goraiatu nahi izan zuen Reyesek: «Emakumezkoen eskubaloia bultzateko balio dezakeela uste dugu, askotan bigarren mailan gelditzen baidakara. Partidu honekin guk egiten dugun lana aintzat hartzen da, eta bazen garaia. Urte askotan Euskal Herrian lan handia egiten ari gara, zailtasun eta oztopo handiak gaudituz. Badirudi kirolean gaudela beste zereginik ez daukagulako, baina eliteko kirolariak gara, eta selekzioa osatzea eskertzekoa da».



Jose Inazio Altube.

EDURNE KOCH

horrelakorik, eta ez gizonezkoetan bakarrik. Horrela jokatuta baloia galduko ditugu, baina arriskatu egingo gara. X